

\$15/hour
MINIMUM WAGE

AZTERKETAK 36

Soldaten bilakaera Hego Euskal Herrian: eros-ahalmenaren beherakada

2017ko APIRILA

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

 MANU
ROBLES-ARANGIZ
INSTITUTUA

Soldaten gaineko txostena

1. Hego Euskal Herriko soldatak	3
2. Soldaten bilakaera: eros-ahalmenaren beherakada nabarmena	3
3. Soldatak eta aberastasuna: aberastasuna kapital errentetara doa	5
a) Kontratu eta lanaldiaren arabeko soldatak: ezberdintasunak handitzen dira	6
b) Adin, sektore, hitzarmen eta jatorriaren arabeko soldatak	8
4. Gizon-emakumeen arteko ezberdintasunak: diskriminazioa hazten doa ...	9
5. Soldatapekoak soldata kopuruaren arabera	10
6. Soldatak Europako testuinguruan: Euskal Herrian hobetzeko aukera handia dago	10
7. Ondorioak	14
8. Proposamenak	15

1. HEGO EUSKAL HERRIKO SOLDATAK

Fase neoliberala gero eta era sakonagoan ezartzen dabilta etengabe botere ekonomiko eta finantzieroa. Ekimen hori, gainera, areagotu egin da 2008az geroztik, subprime krisiaren aitzakiapean.

Ez dute nahi kontuan hartu dezagun 2016an sortu den aberastasuna -BPG delakoa- historiako handiena izan dela eta enpresa handien mozkinak gero eta erraldoiagoak direla: komunikabide eta alderdi politiko sistemikoak erabiliz, kapitalaren jabeek are gehiago nahi dute eta horretarako soldatak murriztu eta ongizate estatua deuseztatzen ari dira, gizartearen gehiengoa txirotuz.

Soldatei buruzko informazio gehiegi ez badago ere, eta dagoena gutxitan aipatzen bada ere komunikabide eta eztabaida politikoetan, ezinbestekoa da horren analisi eta gogoeta burutzea. Txosten honetan soldaten egoerari buruzkoa gauzatzen da.

Hego Euskal Herrian ez dago informazio askorik soldaten inguruan. Alde batetik, Estatu espainiarrak datu gutxi batzuk eskaintzen ditu INEren bitartez. Bestalde, EAE eta Nafarroako Gobernu eta Ogasunek ia ez dute ezer argitaratzen soldatei buruz. Gipuzkoako Foru Aldundia eta bere Ogasuna (zehazki aurreko EH Bilduren gobernu taldea) izan dira informazioa era egokienean eman dutenak, nahikoa izan ez den arren eta gobernu berriak hori egiten jarraitu ez duelarik.

INEk argitaratzen dituen informazioak bi dira: alde batetik, urteko EParen datuak eta, bestetik, lau urtean behin soldatei buruzko inkesta. Horrekin guztiarekin soldaten batezbestekoak, lanaldi motaren arabekoak, kontratuaren arabekoak, urtearen arabekoak, jaso den errenta kopuruaren arabekoak, sexuaren arabekoak eta beste hainbat informazio argitaratzen da.

2. SOLDATEN BILAKAERA: EROS-AHALMENAREN BEHERAKADA NABARMENA

a) EParen arabera, 2015ean hileko batezbesteko soldata gordina 12 ordainalditan 2.056,25 eurokoa zen Nafarroan eta 2.250,20 eurokoa EAEn. Aurreko urtearekiko %0,2 eta %4,8 hazi ziren soldata horiek erkidego bakoitzean, hurrenez hurren.

EPA: batezbesteko soldaten hazkundera 2008-2015 epealdian (%)


	2008-2015	Estatuko KPI 2008-2015
Nafarroa	3,8	10
EAE	6,2	10

Iturria: INE

Epe luzeko joera aztertuz, batezbesteko soldatak hazi egin dira 2008-2015 epealdian %3,8 Nafarroan eta %6,2 EAEn. Epealdi horretan, KPI metatua %10 izan da. Horregatik, EAeko soldatek 3,8 puntuko eros-ahalmena galdu dute, Nafarroakoek 6,2 puntu galdu duten bitartean.

Grafikoak islatzen duenez, azken hamar urteotan soldatak hazi egin dira bai Nafarroan eta baita EAEn ere. Horrela, ikusi daiteke nola EAeko soldatak Nafarroakoak baino handiagoak izan direla, 2010ean izan ezik. Gainera, hazkunde epealdi nagusiak epealdiaren hasieran eman dira bi erkidegoetan (azken urtearekin batera EAEn).

Soldaten bilakaera HEHn



Iturria: INE

b) Lau-urteko soldaten inkestaren arabera, 2014an hileko batezbesteko soldata gordina 2.058,40 eurokoa izan zen Nafarroan eta 2.315,55ekoa EAEn. EPAk 2014rako emandako soldaten datuekiko ezberdintasuna %0,3koa eta %7,8koa da, hurrenez hurren.

Batezbesteko soldaten hazkunde 2008-2014 epealdian (%)

	2008-2014	Estatuko KPI 2008-2014
Nafarroa	5,8	11,2
EAE	8,8	11,2

Iturria: INE

Honen arabera ere, bilakaera hobeia izan da EAEn Nafarroan baino 2008-2014 epealdian: lehenean %8,8 egin dute batezbestean gora soldatek eta Nafarroan %5,8. Kasu honetan, KPI metatua %11,2 izan da, Nafarroan soldatek 5,4 ehuneko puntu galduz eta EAEn 2,4 puntu.


c) Gipuzkoako Ogasunak 2014ko informazioarekin egindako txostenaren arabera, bertako langile bakoitzak urte horretan 2.219,50 euro gordineko diru-sarrera izan zuen hileroko. Datu hau INEk egindako inkestetan EAerako ematen denaren oso antzekoa da, apur bat handiagoa bada ere. Gipuzkoako soldatak 2008 eta 2014 artean %1,35 handitu ziren, KPI %11,2 hazi zen bitartean; honek langileriaren eros-ahalmena nabarmen murriztu zuen. Batezbesteko soldataren bilakaeran, soldaten hazkundeaz gain, eragina du enplegu berriek dituzten soldata baxuagoak (prekarioagoak diren sektoreetan egoteagatik, lanaldi murrizteko enpleguen hedakuntzagatik...).

Ondorioz, lan errentek hein handi batean eros-ahalmena galdu dute gutxi hazi direlako eta hazkunde hori KPIren oso azpitik eman delako. Hau are larriagoa da kontuan izanik azken urteotako aberastasuna era garrantzitsuan handitzen ari dela.

3. SOLDATAK ETA ABERASTASUNA: ABERASTASUNA KAPITAL ERRENTETARA DOA

Aberastasun osoari so eginez, grafikoak erakusten duenez, azken urteotan aberastasunaren gero eta zati murriztagoa bideratzen da lan errentetara. Zehazki, BPGaren %46,7 bideratu zen 2015ean EAEn lan errentetara, eta %46,9 Nafarroan. 2010ean, ordea, aberastasun guztiaren %49,2 eta %50,2 bideratu zen erkidego bakoitzean, hurrenez hurren.

Hortaz, bost urtetan langileriak aberastasunaren %6,5 galdu du Nafarroan eta %5,1 EAEn, jasotzen duen BPGaren zatia 3,3 eta 2,5 ehuneko puntutan murriztu delarik. Horrela, guztira 1.582 milioi euro gutxiago eskuratzen ditu langileriak HEHn azken bost urteotan (992,8 milioi gutxiago EAEn eta 589,7 gutxiago Nafarroan).

Lan errentetara bideratzen den BPGaren zatia (%)

Iturria: INE, Eustat

a) *Kontratu eta lanaldiaren arabera soldatak: ezberdintasunak handitzen dira*

Batezbesteko datuek diskriminazio erraldoiak gordetzen dituzte barnean: kontratu motaren arabera Nafarroan hilean ia 800 euro gehiago kobratzen ditu kontratu mugagabea duen langile batek aldi-baterakoa duen beste batek baino; EAEn, ezberdintasuna 860 eurokoa da, hileroko.

Batezbesteko soldatak kontratuaren arabera 2014an (euroak hilean)

	Batezbesteko soldata	Finkoa	Aldi-baterakoa
Nafarroa	2.058,40	2.212,70	1.415,46
EAE	2.315,55	2.489,52	1.629,94

Iturria: INE

Horrela, kontratu mugagabea duen langile baten soldata %36 altuagoa da Nafarroan eta %34,5 EAEn aldi-baterako kontratua duen beste langile batekin alderatzean. Kontratu finkoa eta aldi-baterakoa dutenen arteko soldaten ezberdintasuna handitu egin da 2008arekin alderatuta: orduan ezberdintasunak %27,9 baitziren Nafarroan eta %30 EAEn.

Kontratu motaren arabera diskriminazioa bortitzagoa da gizonen artean, baina hauek jasotzen dituzten soldatak emakumeenak baino askoz ere altuagoak dira. 2014an, kontratu finkoa zuen gizon batek tenporala zuen

batek baino %41,8 soldata handiagoa zuen Nafarroan eta %39,1 EAEn; emakumeen kasuan %25,3 eta %26,1 zirelarik ezberdintasunak, hurrenez hurren. Ezberdintasun horiek 2008an askoz baxuagoak ziren: gizonen artean %33,7 Nafarroan eta %36,2 EAEn; emakumeen artean %16,2 eta %17,9.

Kontratu motarekin gertatzen den bezala, lanaldiarekin ere soldata ezberdintasunak ematen dira: jardunaldi osoan lan egiten dutenen soldata altuagoa da lanaldi partzialean egiten dutenena baino. Gainera, lanaldi partzialak dituztenen %78,3 emakumeak dira.

Batezbesteko soldatak lanaldiaren arabera 2015ean (euroak hilean)


	Batezbesteko soldata	Lanaldi osoan	Lanaldi partzialean
Nafarroa	2.056,25	2.377,24	878,76
EAE	2.250,20	2.580,71	866,70

Iturria: INE

Taulan ageri denez, batezbesteko soldata oso ezberdina izan da lanaldi osoan edo partzialean egiten duten langileen artean. Azkenengo urtean, lanaldi osoan ekin duten langileek partzialean ekin dutenek baino %63 gehiago kobratu dute Nafarroan eta %66,4 gehiago EAEn.

Horrek zerikusia du, noski, lanaldiaren ordu kopuruarekin. Ohikoa denez, lanaldi osoan 8 ordu egiten dira lan; partzialean, aldiz, eredu ugari daude: batzuetan ordu bat edo bi egiten dira lan, besteetan sei edo zazpi dira. Baina, horrez gain, kontuan izan behar da soldata handienak dituzten enpleguek lanaldi osoa hartu ohi dutela.

Soldata ezberdintasunak kontratu eta jardunaldi motaren arabera 2014an



Iturria: INE

b) Adin, sektore, hitzarmen eta jatorriaren arabera soldata

Adinaren arabera soldata baxuenak gazteek (25 urte baino gutxiago) dituzte eta soldata altuenak 45-55 urte artean dituztenek. Gazteek 1.217,05 euroko soldata dute Nafarroan eta 1.190,20 eurokoa EAEn; 45-55 urte artekoek, aldiz, 2.226,67 euro eta 2.537,80 eurokoa erkidego bakoitzean, hurrenez hurren. Adin tarte guztietan, gizonen soldata emakumeenak baino altuagoak dira.

Sektoreka, soldata altuenak industriakoak dira, eraikuntzakoak hurbil kokatuz. Baxuenak zerbitzuetakoak dira, sektore horretako langileen gehienak emakumeak direlarik. Hemen ere, gizonen soldata emakumeenak baino altuagoak dira sektore guztietan eta bi erkidegoetan.

Soldata sektoreka 2014an (euroak hilean)

	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
Nafarroa	2.400,32	2.023,82	1.890,12
EAE	2.682,96	2.255,46	2.198,37

Iturria: INE

Jabego motaren arabera, sektore publikoan pribatuan baino soldata handiagoak jasotzen dituzte langileek bai Nafarroan (%8,2 gehiago) eta baita EAEn ere (%28,7 gehiago). Nafarroako sektore publikoan 2.219,86

euro gordin kobratzen dira hilean eta pribatuan 2.037,74. EAEn kopuru horiek 3.020,73 euro eta 2.153,74 euro dira, hurrenez hurren.

Soldatak sektore publiko eta pribatuan 2014an (euroak hilean)

	Publikoa	Pribatua
Nafarroa	2.219,86	2.037,74
EAE	3.020,73	2.153,74

Iturria: INE

Gizon eta emakumeen arteko soldata ezberdintasunak nabariak dira kontratatzailearen arabera: EAEn, sektore publikoan dabilen emakume batek %40,8 gehiago kobratzen du pribatuko batek baino, gizon baten kasuan %22,8 gehiago jasotzen duelarik. Nafarroan sektore publikoko emakume batek %23,4 gehiago kobratzen du pribatuan dabilen batek baino, gizonak %0,5 gutxiago kobratzen dutelarik.

Hitzarmen motaren arabera, bi erkidegoetan eta bai gizon eta baita emakumeen kasuan ere soldata altuenak enpresako edota lantokiko akordioa dutenek jasotzen dituzte: 2.398,08 euro Nafarroan eta 2.751,08 EAEn.

Jaioterriaren arabera, INEk estatutik kanpo jaiotakoek bertakoek baino %33,4 gutxiago kobratzen dutela dio Nafarroan eta %40,3 gutxiago EAEn; aldiz, Gipuzkoako Ogasunak atzerrian jaiotakoek estatuan jaiotakoek soldataren erdia zutela zehazten du.

4. GIZON-EMAKUMEEN ARTEKO EZBERDINTASUNAK: DISKRIMINAZIOA HAZTEN DOA

Emakumeek jasotzen dituzten soldata gizonenak baino askoz ere baxuagoak dira. Batezbestean, emakume batek gizon batek baino %29,6 gutxiago kobratzen du Nafarroan eta %23,9 gutxiago EAEn. Diskriminazio mota hau hazi egin da 2008az geroztik: ehuneko bi puntutan egin du okerrera Nafarroan eta ehuneko puntu batean EAEn.

Emakumeei egindako diskriminazioa soldatetan 2014an (%)

	Batezbesteko soldatan	Kontratu finkoan	Aldi-baterako kontratuan
Nafarroa	-29,6	-31,4	-12,1
EAE	-23,9	-25	-8,9

Iturria: INE

Kontratu finkoa dutenen artean, emakumeenganako diskriminazioa are handiagoa da: %31,4koa da Nafarroan eta %25ekoa EAEn. Aldi-baterako kontratua dutenen kasuan, emakumeenganako diskriminazioa %12,1 eta %8,9 da erkidego bakoitzean, hurrenez hurren. Gipuzkoako Ogasunaren txostenaren arabera, emakumeek gizonek baino %25,3 gutxiagoko soldata izan zuten 2014an lurralde historikoan.

5. SOLDATAPEKOAK SOLDATA KOPURUAREN ARABERA


Hego Euskal Herrian, 74.400 langilek 449 euro baino gutxiagoko soldata dute hilean, pobrezia mailatik eta gutxiengo soldataren oso azpitik dagoen kopurua delarik. Are gehiago, guztira 207.800 pertsonak 1.094 euro baino baxuagoa den soldata dute hilero. Kontrako aldean, 131.300 langilek 4.450 euro baino gehiagoko diru-sarrerak dituzte hileko egiten duten lanagatik.

Gainera, soldata altuena jasotzen duten langileen %10aren diru-sarrera langile txiroenen %10ena baino: soldata handiena duten langileek baxuena dutenek baino 10 aldiz gehiago kobratzen dute.

6. SOLDATAK EUROPAKO TESTUINGURUAN: EUSKAL HERRIAN HOBETZEKO AUKERA HANDIA DAGO

Europar Batasunean soldata maila oso ezberdinak ematen dira: batezbestean hileko 2.293 eurotan kokatzen da 28 estatuen batasunean. Gehien kobratzen den estatua Luxenburgo da, bertan 3.913 eurokoa delarik. Gutxien, ordea, Bulgarian, 420 euroko soldataz.

**Hileko soldata eta bere pisua %BPG per capitán EB-28n
2014an (Grezia eta Kroazia 2010)**



Iturria: Eurostat, INE

EAE eta Nafarroan EB-28ko batezbestekoaren oso antzeko soldata jasotzen da, 2.316 eta 2.058 euro, hurrenez hurren. Kopuru hori soilik Europa ekialde eta hegoaldeko estaturen aurretik kokatzen da, baina Italia, Irlanda edota Estatu frantziarrarenaren atzetik.

Hala eta guztiz ere, batezbesteko soldatak BPG per capitano duen pisua oso ezberdina da Europa osoan: Luxemburgok soldata altuenak baditu ere, batezbesteko aberastasunarekin alderatzean erlazio baxuena du (%59). EAE eta Nafarroako egoera ez da bat ere ona, BPG per capitaren %90 eta %88 suposatzen baitute batezbesteko soldatek, hurrenez hurren. EB-28n soldatak batezbesteko BPGaren %106 beste dira.

Gutxiengo soldatari dagokionez, 2017rako 825,65 eurotan kokatuko da 12 ordainalditan (707,60 euro 14 alditan) Estatu espainiarrean eta, ondorioz, HEHn. Europako estatu guztiek lege ezarrita ez badute ere, gehienetan ezarrita dago gutxiengo kopuru hori.


EB-28n gutxiengo soldata lege ezarrita ez duten estatuak Austria, Danimarka, Finlandia, Italia, Suedia eta Txipre dira (estatu hauetan akordio interprofesional edo negoziazio kolektiboaren bidez finkatzen da gutxiengo soldata). Gutxiengo soldata dutenen artean, altuena Luxemburgok du (1.998,59 euro 12 alditan) eta baxuena Bulgariak (235,20 euro 12 alditan).

Hala eta guztiz ere, pertsonako aberastasunarekin alderatu ezker (BPG per capitarekin, hain zuzen) Europako leku okerrean kokatzen gara. Hego Euskal Herriko gutxiengo soldata BPG per capitaren (edo batezbesteko aberastasunaren) %30,3 beste da, EB-28ko hirugarren murrizena izanik aipaturiko Luxemburgoaren eta Txekiaren (bertan %29,8 da) atzetik.

Aipagarria da kontinenteko estatu handi eta boteretsuenetako soldata minimo erlatibo hau %40tik gora kokatzen dela: Alemanian (%47,2), Erresuma Batuan (%44,6), Estatu frantziarrean (%53,3), Estatu espainiarrean (%41,7), Belgikan (%49,7), Herbehereetan (%45,4), Polonian (%48,6) eta Portugalen (%44).

Aldiz, gutxiengo soldata batezbesteko BPGarekiko baxuena duten estatuak, oro har, ekialdekoak eta tamainaz txikiagoak dira: hiru estatu baltikoek, Txekiak, Eslovakiak, Irlandak eta Luxemburgok BPG per capitaren %37tik beherako gutxiengo soldata dute.

**EB-28ko gutxiengo soldata absolutua
eta %BPG per capitarekiko erlatiboa***



Iturria: INE, Eustat, Eurostat

*Azken datu erabilgarriekin egin da analisia; BPG, populazio eta gutxiengo soldataren azken datu uniformeak 2015ekoak dira, aldaketa esanguratsurik eman ez delarik orduko egoeraren eta txosten honetan deskribatzen denaren artean. Txostenen honetan erabilitako datuak: BPG: HEHn 2016ko hazkunde estimazioaren datuarekin egina; Alemania, Grezia, Estatu frantsesa, Lituania, Herbehereak, Austria eta Eslovakia 2016ko datua; gainontzekoak 2015eko azken hiruhileko gehi 2016ko lehen hiru hiruhilekoak.

Populazioa: 2016ko urtarrilak 1eko datua.
Gutxiengo soldata: 2017ko urtarrileko datua.

Europar Batasuneko gutxiengo soldata erlatiboen batezbestekoa %41,8koa, Estatu espainiarraren ia berbera. Hego Euskal Herrian Estatu espainiarreko gutxiengo soldata erlatiboa aplikatuz, hilean 1.135,07 eurokoa izango litzateke gutxiengo soldata 12 ordainalditan. Estatu frantziarrekoa aplikatuz, kopurua 1.452,59 eurokoa.

**HEHn zenbatekoa litzatekeen hileko gutxiengo soldata,
ondorengo estatuetakoko egoera aplikatu ezker (eurotan)**

Estatu espainiarra	1.135,07
Estatu frantziarra	1.452,59
Portugal	1.198,69
Alemania	1.284,41
Erresuma Batua	1.213,88
Belgika	1.353,23
Herbehereak	1.235,68

7. ONDORIOAK

Hori guztia dela eta, honakoa ondorioztatzen da:

1. Botere ekonomiko eta finantzieroa gauzaten dabil soldaten aurkako ekimena, langileriaren bizi-baldintzak okertzeko asmoz euren mozkin eta aberastasuna handitzeko. Hau oro har gizartearen eta ongizate estatuaren aurka ere aplikatzen dute.
2. Soldaten eta aberastasunaren banaketaren inguruko informazio eta gardentasun falta nabarmena dago, honekin ezberdintasunak mantentzen direlarik eta boterea dutenei euren egoeran jarraitzeko erraztasunak emanez.
3. Soldatek eros-ahalmena galdu dute azken urteotan, subprime krisiaren hasierarekin eta lan zein negoziazio kolektiboaren erreformen ondorioz areagotu egin den joera. Gainera, soldatek aberastasunean duten pisua era nabarmenean murrizten dabil, 2010-2015 urteen artean BPGtik 1.582 milioi euro galduz.
4. Soldata altuenak enpresako edota lantokiko akordioa dutenek jasotzen dituzte.
5. Soldaten baitan diskriminazio mota ugari ematen dira:
 - Emakumeen soldatak gizonen laurdena eta herena artean txikiagoak dira.
 - Gazteen soldatak 45-55 urteen artekoen erdia dira.
 - Kontratu partziala dutenen soldatak jardunaldi osokoen soldaten herena dira.

- Kontratu tenporala dutenek finkoa dutenen soldataren heren bat gutxiago dute.
 - Industrian beste sektoreetan baino gehiago kobratzen da eta baita sektore publikoan ere.
 - Soldata altuenak baxuenak baino 10 aldiz handiagoak dira.
6. EAE eta Nafarroako soldatak Europar Batasuneko batezbestekotik hurbil kokatzen dira. Hala eta guztiz ere, soilik Europako ekialdeko eta hegoaldeko estatuen soldaten gaineratik gaude, Italia, Irlanda edota Estatu frantziarrekoen atzetik geratuz.
7. Gutxiengo soldata murriztegia da HEHn:
- Pobrezia maila erlatiboaren azpitik kokatzen da.
 - Aberastasunarekin alderatzean, Europar Batasuneko hirugarren txikiena da.
 - Hurbilen ditugun estatuen gutxiengo soldata erlatibo aplikatuz (Estatu frantziar eta espainiarra, hain zuzen) 1.135 eta 1.455 euro artean finkatu behar da HEHkoa.
 - Gutxiengo soldata minimoa aberastasunarekin alderatzean, eta Europar Batasuneko erdiko balioak aplikatuz (Portugal eta Erresuma Batukoak), HEHn 1.200 euro inguruko gutxiengo soldata ezarri behar da.
8. Soldaten eros-ahalmena handitu beharra dago.

8. PROPOSAMENAK

Enplegu duina sortu eta eros-ahalmena gehitzeko politikak aplikatu behar dira. Horretarako, besteak beste, honako neurriak hartuz:

1. Informazio eta gardentasun maila areagotzea eta gizartearen eskura jartzea, analisi eta gogoeta prozesu bat abiatuz gai honen inguruan. HEHko Ogasunek informazio osoa eskaini behar dute, bere garaian Gipuzkoakoak egin zuenari jarraituz baina era sakon eta gardenagotan.
2. 1.200 euroko gutxiengo soldata ezartzea langileriaren soldata eta bizi-baldintza duinak bermatzeko.
3. KPlz gaindiko soldata igoerak aplikatu behar dira, galdutako eros-ahalmena berreskuratzeko eta soldatek BPGan duten garrantzia %60ra iritsi dadin berriro ere.
4. Adin, sexu eta jatorriak sortarazten dituen diskriminazio egoerekin amaitzea izan behar da gure helburua, emakumeek jasaten duten soldata eta lan diskriminazioa ezabatzea ezinbestekoa delarik.
5. Prekaritate egoerak dasagertarazi behar ditugu, esparru eta arlo guztietan, soldatetan eta orokorrean enplegu eta bizi kalitatean.

Horrela, kontratu mugagabea izan behar da kontratazio era ohikoe-na eta enpleguan ematen den iruzurraren aurka ekin behar da: lanaldi partzialari lotuta dagoen malgutasuna, subkontratazioa, ETTak, zerbitzu eta outsourcing enpresak eta abar debekatuz.

6. Lanaldiaren murrizketan aurrera pausuak eman behar dira, asteko lanaldia gehienez 35 orduara murriztuz, soldata jaitsierarik gabe. Horrela enplegu gehiago sortzen da langabezia gutxituz.
7. Negoziazio kolektiboa Euskal Herrian gauzatzea. Hemengo lan baldintzak hemen erabaki behar dira. Lan Harremanetako eta Babes Sozialerako Euskal Esparrua sustatzea ezinbestekoa da lan eta negoziatio kolektiboaren erreformak bertan behera uzteko, nahiz eta gaur egun ez dugun ez gobernurik ez patronalik horretarako prest.
8. Estaldura sozial duinak ezartzea. Horrenbestez, beharrezkoa da gizarte-prestazioen erosteko ahalmena hobetzea. Ikuspuntu soziale-tik bidezkoa da, eta ekonomikotik ere eragin positiboak ditu.
9. Aurrekontu eta zerga-politikak errotik aldatzea. Doitzeko eta murriz-teko politikarekin langabezia eta atzeraldia areagotzen ari dira. Politika hauek bertan behera uztea ezinbestekoa da.
10. Arlo publikoa garatzea, batik bat ongizate estatuarekin lotutako zer-bitzuei dagokienez. Enplegu publikoa gehitu beharra dago osasun-gintzan, hezkuntzan, gizarte-zerbitzuetan, garraioan, etab.
11. Enplegu berdeen sustapena. Funtsezkoa da gizarte eta ekologia eraldaketa gauzatzea ekonomian, jarduera iraunkorrak sustatuz, egungo produkzio, banaketa eta kontsumo eredua aldatzeko. Horretarako aktibitate ekonomikoak birkokatu behar dira. Gainera, enplegua sortzeko potentzial handia dago hainbat sektoretan: ener-gia berriztagarriak, hondakinen kudeaketa eta tratamendua, lurzo-ruen berreskurapena...